



# Tolosako Abesbatza Jaialdia 2020

Abendua - Diciembre  
8-11-12-13-19





Antolatzailea  
Organizador



Tolosako Ekinbide Etxea  
Centro de Iniciativas de Tolosa

Babesleak  
Patrocinadores



## JAIALDIKO BATZORDEAK / COMITÉS DEL FESTIVAL

<u>Ohorezko Lehendakaria</u> Presidente de honor	Excmo. Sr. D. Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
<u>Ohorezko Batzordea</u> Comité de honor	Excmo. Sr. D. Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldun nagusia Excmo. Sr. D. Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua Ilma. Sra. Dña. Olatz Peon Tolosako Alkatea
<u>Batzorde exekutiboa</u> Comité ejecutivo	D. Aitor Imaz D. Luis Miguel Espinosa D. Xabier Ormazabal Dña. Idoya Otegui
<u>Batzorde teknikoa</u> Comité técnico	D. Enrique Azurza D. Javier Busto D. Josu elberdin D. Xabier Sarasola

<u>Batzorde Artistikoa</u> Comité Artístico	Luis Miguel Espinosa Xabier Ormazabal	<u>Argazkiak</u> Fotografía	Iñigo Royo
<u>Koordinazio Orokorra</u> Coordinación general	Imanol Aramendi Raquel Etxabe Aitor Imaz Amaia Perales	<u>Azafatak</u> Azafatas	Marei Azafatas
<u>Administrazioa</u> Administración	Asun Vildarraz Arantxa Larrañaga URD Aholkularitza	<u>Eszena koordinazioa</u> Coordinación Escena	June Abasolo Sara Aguirrezabala Irati Balda Maider Belver Edurne Gabarain Lucia Guerra Irati Hartsuaga Irati Jometon Lorea Martínez Ane Movellán Iara Ugartemendia
<u>Harreman publikoak</u> Relaciones públicas	Idoya Otegui Ana Lopetegi		
<u>Komunikabideak</u> Medios de comunicación	Rosa Izquierdo Juanma Goñi Xabier Ormazabal		

## LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

Agua de Insalus  
Herrikide Ikastetxea  
Santa Clara Komentua  
Aita Frantziskotarrak  
Santa Maria Parrokia  
Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte



# Aurkezpena Presentación

Aurtengo lehiaketa lotua genuen urtero legez maila altuko nazioarteko hainbat talderekin. Mundu osoko ordezkariak genituen zerrendan, EEBB, Indonesia, Filipinak, Hego Korea, Errusia... Baina mundu mailako osasun egoera larriak baldintzatuta, hankaz gora jarri zizkigun gure hasierako planak.

Hala ere, argi genuen gure lanak aurrera jarraitu behar zuela eta Luis Miguel Espinosa eta Xabier Ormazabal talde buruek JAIALDI ederra antolatu digute.

Urteroko bisitari eta entzule zareten guztiok merezi duzuelako, Tolosako Abesbatza Lehiaketaren sustraietara salto egiten duen Jaialdi bat antolatu da aurtengoan. Hasierako sorburu hartara, bertako taldeak gonbidatuaz.

Etxeko hainbat talde erreferente izango ditugu datozen egunetan oholta gainean, beti ere gure lehiaketak lortu duen nazioarteko ospe eta maila hori mantentzen saiatuaz.

Hala nola, ahots taldeak, ganbera abesbatzak, gogoz lanean dabiltzan abesbatza gazteak... guztiak, izen handiko musikagileen lanak eskainiko dizkigutelarik: Buxtehude, Bach, Brahms, Dvorak, Poulenc, Schubert ... eta nola ez gaur egungo musika.

Ea mundu osoko osasun egoera kontrolatzea lortzen den, eta datorren urtean Tolosako Abesbatza Lehiaketa ilusio eta gogoz antolatzeko moduan gauden.

Bitartean, guztiak arduratsuak izanik eta gure aldetik osasun eta segurtasun baldintza guztiak beteaz, aurtengo gure opariaz gozatu. Arimak asetu eta GURE abesbatzen lan ederrak gogoz txalotu.

Como todos los años, el concurso de esta edición estaba vinculado a diversos grupos internacionales de alto nivel. En la lista teníamos representantes de todo el mundo: EEUU, Indonesia, Filipinas, Corea del Sur, Rusia..., pero ante la pandemia mundial que estamos viviendo, tuvimos que posponer el concurso al año que viene.

Sin embargo, teníamos claro que nuestro trabajo tenía que seguir adelante por lo que el comité artístico, compuesto por Luis Miguel Espinosa y Xabier Ormazabal, han organizado para la ocasión un precioso FESTIVAL.

Un Festival que vuelve a las raíces del Certamen Coral de Tolosa, ya que todos los y las asistentes que nos visitan cada año se lo merecen. Hemos invitando a coros locales a participar en el Festival, tal y como lo hicieron hace más de 50 años, en los inicios del Certamen.

En los próximos días se subirán al escenario coros nacionales que intentarán mantener ese prestigio y nivel internacional que ha alcanzado nuestro Concurso.

Grupos vocales, coros de cámara, coros juveniles..., con obras de compositores de renombre como Buxtehude, Bach, Brahms, Brahms, Dvorak, Poulenc, Schubert... y también, ¡cómo no!, con la música actual.

Esperamos que se consiga controlar la situación de salud en todo el mundo y que el año que viene estemos en condiciones de organizar, como siempre, con ilusión y ganas el Certamen Coral de Tolosa.

Mientras tanto, siendo todos y todas responsables y cumpliendo por nuestra parte las normas de salud y seguridad, os invitamos a disfrutar de nuestro regalo de este año. Saciad las almas y aplaudid con entusiasmo las hermosas interpretaciones de NUESTROS coros.

Aitor Imaz Larreta

Tolosako Ekinbide Etxeko Presidentea  
Presidente del Centro de Iniciativas de Tolosa



Egitarau Orokorra  
Programa general

## EGITARAU OROKORRA / PROGRAMA GENERAL

Abenduak 8 de Diciembre,  
San Frantzisko Eliza (19:00)

IN MEMORIAM

EUSKAL HERRIKO GAZTE ABESBATZA

Abenduak 11 de Diciembre,  
San Frantzisko Eliza (19:00)

BACH ISPILUAREN AURREAN  
BACH ANTE EL ESPEJO  
Buxtehude, Johann Christoph, Pachelbel, Bach

CONDUCTUS ENSEMBLE

Abenduak 12 de Diciembre,  
San Frantzisko Eliza (19:00)

“MUNDUTIK ETXERA, ETXETIK MUNDURA”  
“DEL MUNDO A NUESTRA CASA,  
DESDE NUESTRA CASA A TODO EL MUNDO”

SUHAR KORUA

Abenduak 13 de Diciembre,  
San Frantzisko Eliza (19:00)

SACRED AND PROFANE

KEA AHOTS TALDEA

Abenduak 19 de Diciembre,  
San Frantzisko Eliza (19:00)

REQUIEM ALEMANIARRA  
REQUIEM ALEMÁN  
(Johannes Brahms)

KUP TALDEA



# Abenduak 8 Diciembre

## San Frantzisko Eliza, 19:00

### In Memoriam

LULLABY, Daniel Elder (EEUU 1986),  
BELTZA IZOTZA, ELURRA ZURI, Xabier Sarasola (Euskadi 1960)  
EVEN WHEN HE IS SILENT, Kim André Arnesen (Noruega 1980)  
AVE MARIA, Francisco Ibáñez-Iribarria (Euskadi 1951)  
SATOR, Bodvar Moe (Noruega 1951)  
REQUIEM AETERNAM, Eliza Gilkyson (EEUU 1950)  
GUTARIKO BAKOITZA, Josu Elberdin (Euskadi 1976)  
NEWTOWN PSALM, John F. Hudson (EEUU 1982)  
LET MY LOVE BE HEARD, Jake Runestad (EEUU 1986)  
SNOW DANCE OF THE DEATH, Sean Doherty (Irlanda 1987)  
THE MUSIC OF STILNESS, Elaine Hagenberg (EEUU 1979)

Basilio Astulez, Zuzendaria  
Aitor Biain, Zuzendaria  
Itxaso Sainz de la Maza, Pianoa

Euskal Herriko Gazte Abesbatzari aurtengo denboraldian proposatutako programa begirada introspektibo bat da eta gure azken hamarkadetako historia markatu duten gertaeren oroitzapena; taldeko abeslariak, gazteak izan arren, identifikatuta sentitzeko moduko programa. Hunkitu hunkiarazteko eta sentitu sentiarazteko. Hori da Basilio Astulezek eta Aitor Biainek osatutako zuzendaritza artistiko berriak Euskal Herriko hainbat lekutako 40 gazte biltzen dituen taldearen motorra etapa berri honetan, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek sortutako proiektu honen inguruan hunkitzeko eta sentiarazteko.

Esaterako, Bodvar Moe musikagile norvegiarrak idatzitako Sator lana, palindromo batean oinarritutako pieza, mundua odolaren isuritik babestu nahi duen mezua duena. 2001eko irailaren 11ko tragediak eragin zuen konmozio handiari erantzuteko idatzi zen.

Eliza Gylkinson abeslari amerikarraren Requiem Aeternam obra, Craig Hella Johnsonen abesbatzarako egokitua, Asian 2014ko gabonetan kostalde pazifikoa arrastatu zuen tsunamiaren ondoren sortu zen.

Jake Runestad-ek Let my love be Heard idatzi zuen Parisen 2015eko azaroan Bataclan diskotekaren aurkako atentatuetan hildako kantari baten oroimenez eta John F. Hudson-ek Newtown Psalm sortu zuen 2012an Conneticuten eskola bat tirokatzean hildako haur eta irakasleen oroimenez.

Gure gizartea hunkitu eta markatu duten gertaerak, ekintza kondenagarri eta tragikoenak ere inspirazio-iturri izan daitezke, mina edertasun eta arte bihurtzeko, nolabait gertatutakoarekin sendatu eta anaieratu nahian.

Horren barruan sartzen da Norvegiako Kim André Arnesen-en Even when he is silent, bigarren mundu-gerraren ondoren Koloniako kontzentrazio-eremu bateko upategi baten hondakinetan aurkitutako poema anonimo bat jasotzen duena. Itxaropenez eta fedez betetako poema bat da, heriotzari eta izuari erantzuteko.

## In Memoriam

Seán Doherty irlandarraren Snow dance of de death delakoak, era berean, iraultzaren ondoren gertatu zen Errusiar gerra zibilari erreparatu zion, baita iraultzak eragindako traizio eta jazarpen kasuei ere. Lola Ridge amerikarraren poema ederra erabiltzen du eszenaratze harrigarria duen dantza makabro bat sortzeko.

Antzina-antzinatik, garai guztietako konpositore handiek musika egin dute, inguruan izan dituzten gertaera sozial, publiko edo pribatuek erakarrita, eta programa honen asmoa da sorkuntza-motor boteretsu horri dei egitea, kontzeptu hori eguneratuz eta horretarako, oroimenaren eta adiskidetzaren sinboloekin lotutako abesbatza-errepertorio garaikide aparta hautatuz.

El programa propuesto para esta nueva temporada al Coro de Jóvenes del País Vasco supone una mirada introspectiva y un recuerdo a acontecimientos que han marcado nuestra historia reciente y con los que los y las cantantes del grupo pueden también sentirse identificados a pesar de su edad. Emocionarse para emocionar, sentir para hacer sentir es el motor que su nueva dirección artística formada por Basilio Astúlez y Aitor Biain ha querido encender en esta nueva etapa de un colectivo que reúne a 40 jóvenes de diversos lugares de Euskal Herria en torno a este proyecto creado por Euskal Herriko Absbatzen Elkartea.

Así por ejemplo el compositor noruego Bodvar Moe escribe Sator, una pieza chamánica basada en un palíndromo cuyo mensaje pretende proteger al mundo del derramamiento de sangre y que fue escrita como respuesta a la enorme conmoción que supuso la tragedia del 11 de septiembre de 2001.

La obra Requiem Aeternam de la cantante country americana Eliza Gylkinson y adaptada para coro por Craig Hella Johnson fue compuesta tras el tsunami que arrasó la costa pacífica en Asia en Navidad de 2014.

Jake Runestad escribió Let my love be Heard en memoria de una cantante cercana fallecida en París en los atentados a la discoteca Bataclan en Noviembre de 2015 o John F. Hudson creó Newtown Psalm como recuerdo a los niños y docentes fallecidos en el tiroteo a una escuela de Conneticut en 2012.

Los hechos que han conmocionado y marcado a nuestra sociedad, los actos más condenables y trágicos pueden ser también inspiración para transformar el dolor en belleza y en arte que de alguna manera busque sanar y reencontrarse con lo sucedido.

Así se incluye Even when he is silent del noruego Kim André Arnesen que recoge un poema anónimo encontrado en las ruinas de una bodega de un campo de concentración en Colonia después de la segunda guerra mundial. Se trata este de un poema lleno de esperanza y de fe como respuesta a la muerte y al horror.

Snow dance of de death del irlandés Seán Doherty pone a su vez su mirada en la guerra civil rusa que tuvo lugar tras la revolución y en los casos de traición y persecuciones que esta ocasionó. Utiliza un bellissimo poema de la americana Lola Ridge para crear una danza macabra con una puesta en escena sorprendente.

Desde tiempos inmemoriales los grandes compositores de todos los tiempos han hecho música llevados y conmovidos por los acontecimientos sociales, públicos o privados que los han rodeado y este programa pretende evocar ese poderoso motor de creación actualizando este concepto y realizando para ello una exquisita selección de repertorio coral contemporáneo conectado por el símbolo de la memoria y la reconciliación.

## Euskal Herriko Gazte Abesbatza Coro de Jóvenes del País Vasco



2016. urtean Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek, munduko koru-erakunde desberdinek antolatutako gazte-abetesbatzako proiektuak jarraituz, Euskal Herriko Gazte Abesbatza sortu zuen. Hau, hautafroga zorrotz batzuen ondoren Euskal Herriko 40 ahots gazte onenak aukeratuak izan ziren.

Euskadiko antzoki eta auditorium onenetan abestu du, Donostiako Hamabostaldian, Miramongo Matineetan, Tolosako Abesbatza Lehiaketan eta hainbat gazte taldeekin: EGO (Euskal Herriko Gazte Orkestra), EIO (Euskal Ikasleen Orkestra) eta Cor Jove Nacional de Catalunya. Bigarren denboraldi honetan Basilio Astulez da bere zuzendari titularra, Aitor Biain zuzendari laguntzailea izanik. Taldea sortu zenetik, 2019. urte arte Isabel Mantecón eta Esteban Urzelairen zuzendaritzapean egon zen.

INAEM, Kutxa Fundazioa, Eusko Jaurlaritzeta, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundien babesa jasotzen du.



Euskal Herriko Gazte Abesbatza - Coro de Jóvenes del País Vasco, inspirado en otros coros juveniles organizados por entidades corales surge en 2016 impulsado por la Confederación de Coros del País Vasco con una exigente selección de 40 de las mejores voces jóvenes de Euskal Herria.

Ha realizado actuaciones en los mejores teatros y auditorios del País Vasco en la Quincena Musical de San Sebastián, Matineés de Miramón, Certamen Coral de Tolosa y junto a diversas agrupaciones jóvenes: las orquestas de jóvenes EGO (Euska Herriko Gazte Orkestra) y EIO (Euskadiko Ikasleen Orkestra) y el Cor Jove Nacional de Catalunya. En esta temporada 2020-2021 está dirigido por Basilio Astúlez como director titular y Aitor Biain como director asistente. Desde su creación hasta el 2019 fue dirigido por Esteban Urzelai e Isabel Mantecón.

Cuenta con el apoyo económico de INAEM, Fundación Kutxa, Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de Gipuzkoa y Bizkaia.

## Aitor Biain Bidarte (1983), zuzendaria

Klarinete, saxofoi eta kantu ikasketak egiten hasi zuen musika ibilbidea (Oñatiko Musika Eskolan). Ondoren, Kantu ikasketak (Jesús Guridi Musika Kontserbatorioan), Musikaren Pedagogia ikasketak (Musikenen) eta abesbatza eta Orkestra zuzendaritza ikasketak (Musikenen) egin ditu. Bestalde, informatikan Ingeniaria da Mondragon Unibertsitatearen eskutik. Hainbat zuzendaritza ikastaro eta seminario egin ditu ospe handieneko irakasleekin. Euskal Herriko Unibertsitateko abesbatzaren, Bergarako Orfeoia, Oñatiko Ganbara Abesbatzaren, Hots Abesbatzaren eta Ganbara Gazte-Txikiren zuzendaria da. Hainbat eta hainbat sari irabazi ditu, tartean Zuzendari onenari emandako bi sari (Tours/Francia eta Arezzo/Italiako nazioarteko lehiaketetan). 5 disko grabazio zuzendu eta editatu ditu eta 30 lanetik gora estreinatu. Aldizka, tailer eta seminarioak ematen ditu. KUP Taldean eta Suhar taldean abesten du. Honekin batera, Oñatiko Udal Musika Bandako kide da.



Comenzó su andadura musical realizando estudios de Clarinete, saxofón y canto (Escuela de Música de Oñati). Más tarde, realizó estudios de canto (Conservatorio de Música Jesús Guridi), Pedagogía Musical (Musikene), y Dirección de Coro y Orquesta (Musikene). Por otro lado, es Ingeniero informático por Mondragon Unibertsitatea. Ha realizado numerosos cursos y seminarios de dirección con los profesores más prestigiosos. Es director del coro de la Universidad del País Vasco, Orfeón de Bergara, Oñatiko Ganbara Abesbatza, Hots Abesbatza y Ganbara Gazte-Txiki. Ha logrado notables premios, entre ellos a destacar dos premios al Mejor Director (en los concursos internacionales de Tours/Francia y Arezzo/Italia). Ha dirigido y editado 5 grabaciones discográficas y ha estrenado más de 30 obras. Ofrece regularmente talleres y seminarios. Es miembro de KUP Taldea y Suhar. También es miembro de la Banda Municipal de Música de Oñati.

## Basilio Astúlez, zuzendaria

Leioako Udal Kontserbatorioko irakaslea da, 2000. urtean Leioa Kantika Korala haur abesbatzaren sortzailea eta urte horretatik aurrera SJB (San Juan Bautista) gazte abesbatzaren zuzendaria. Abesbatza-eskola gazte honek 7 eta 25 urte bitarteko 250 abeslari baino gehiago biltzen ditu eta dagoeneko sari ugari jaso ditu Espainiako eta Europako lehiaketetan.

1999an emakumeek bakarrik osatutako Vocalia Taldea sortu zuen, nazioarteko zirkuituko lehiaketa nagusietan 20 aldiz baino gehiagotan saritua. Talde horien buru, 10 grabazio diskografiko eta nazioarteko bira ugari egin ditu European, Asian eta Amerikan, eta bakarlari, orkestra, zuzendari eta talde garrantzitsuekin lankidetzan aritu da.

Halaber, aintzatespen pertsonal garrantzitsuak jaso ditu, besteak beste, Tours, Arezzo eta Goriziako lehiaketetan zuzendari gisa eta ondorengo abesbatzak zuzendu ditu baita ere: RTVEko Abesbatza, Kolonbiako Haur Abesbatza Nazionala, Mexikoko Haur Abesbatza Nazionala eta Indonesian National Children's Choir.

Gaur egun, irakaskuntza eta prestakuntza ematen die hezkuntza-erakundeei, unibertsitatei eta herrialdeko hainbat koru-federaziori, eta askotan, lehiaketetako epaimahai gisa aritzeko deitzen diote, baita mundu osoan abesbatza-kantuko ikastaroak eta mintegiak eskaintzeko ere, nazioarteko jaialdi askotan. 2018az geroztik, Musikene Euskal Herriko Goi-mailako Kontserbatorioko abesbatza-zuzendaritzako irakaslea da, eta 2019az geroztik Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren (EHGA) zuzendaritza artistikoa hartu du bere gain.



Es profesor en el Conservatorio Municipal de Leioa, fundador del coro infantil Leioa Kantika Korala en 2000 y director del coro juvenil SJB (San Juan Bautista Abesbatza) desde ese mismo año. Esta joven escuela coral engloba a más de 250 cantantes de entre 7 y 25 años y ha recibido ya numerosos galardones en certámenes españoles y europeos.

En 1999 funda el grupo de cámara femenino Vocalia Taldea, premiado en más de 20 ocasiones en los principales certámenes corales del circuito internacional. Al frente de estos grupos ha realizado 10 grabaciones discográficas y un gran número de giras internacionales en Europa, Asia y América y colaborado con importantes solistas, orquestas, directores y agrupaciones.

Ha recibido también importantes reconocimientos personales como director en certámenes como Tours, Arezzo o Gorizia y ha dirigido el Coro de RTVE, Coro Nacional de Niños de Colombia, Coro Nacional Infantil de México o Indonesian National Children's Choir entre otros.

Actualmente imparte docencia y formación para entidades educativas, universidades y diversas federaciones corales del país y es frecuentemente solicitado como jurado en certámenes y para ofrecer cursos y seminarios de canto coral por todo el mundo en un gran número de festivales internacionales. Desde 2018 es también profesor de dirección coral en el Conservatorio Superior del País Vasco Musikene y desde 2019 asume la dirección artística del Coro de Jóvenes del País Vasco (EHGA).





Abenduak 11 Diciembre  
San Frantzisko Eliza, 19:00

## Bach ispiluaren aurrean / Bach ante el espejo

### Egitaraua / Programa:

JESU, MEINES LEBENS LEBEN, BuxWV 62,  
Dietrich Buxtehude (Alemania, 1637-1707)

HERR, WENDE DICH UND SEI MIR GNADIG  
Johann Christoph Bach (Alemania, 1642-1703)

WAS GOTT TUT, DAS IST WOHLGETAN, BWV 487  
Johann Pachelbel (Alemania, 1653-1706)

CHRIST LAG IN TODESBANDEN, BWV 4  
Johann Sebastian Bach (Alemania, 1685-1750)

Oso gutxi, edo, hobeto esanda, ia ezer ez dakigu, Bachen bizitzako lehen urteez, eta are gutxiago nerabe bizitza gorabeheratsuan zehar izan zuen prestakuntzaz eta formakuntzaz.

Baina, iritsi zaizkigun apurren artean, Bachen biografo guztiak bat datozen zerbait dago, autodidakta izan zela, berak ikasleei errepikatzen zien bezala, miresten zituen musikarien partiturak kopia-tuz konposatzen ikasi zuela: Johann Christoph Bach, Johann Pachelbel eta Dietrich Buxtehude musikari mirengarri horien artean zeuden.

Johann Christoph Bach osabaren partiturak kopiatu zituen, eta idatzi zuen "konpositore sakona, familiako adierazkorrena" zela. Johann Pachelbelen musika Johann Christoph anaiaren etxean ezagutu eta kopiatu zuen -haren aitaorde eta familiako laguna zena-, eta 400 kilometro baino gehiago egin zituen oinez Dietrich Buxtehude ezagutzeko, haren musika erabakigarria izan zen bere bilakaeran.

Jarraian aurkeztzen den programak omenaldi txiki bat egin nahi die konpositore handi horiei -neurri handi batean, ezezagun handi horiei-, eragin zuzena izan baitzuten, askorentzat garai guztietako konpositorerik handiena denaren garapenean.

Muy poco, o mejor dicho casi nada, es lo que sabemos de los primeros años de la vida de Bach, y aún algo menos de lo que fue su formación a lo largo de su azarosa vida de adolescente.

Pero de entre lo poco que sabemos hay algo en lo que coinciden todos los biógrafos de Bach y es el hecho de que fue autodidacta, que -tal y como él mismo repetía a sus alumnos- aprendió a componer copiando partituras de los músicos que admiraba: Johann Christoph Bach, Johann Pachelbel y Dietrich Buxtehude estaban entre esos músicos admirados.

Copió partituras de su tío Johann Christoph Bach de quien dejó escrito que era "un profundo compositor, el más expresivo de la familia". Conoció y copió la música de Johann Pachelbel en casa de su hermano Johann Christoph, de quien era padrino y amigo familiar, y, viajó más de 400 kilómetros a pie para aprender de Dietrich Buxtehude, cuya música resultó ser decisiva en su evolución como compositor.

El programa que seguidamente se presenta es un pequeño homenaje a esos grandes compositores -en gran parte también grandes desconocidos- que de una manera directa influenciaron en el desarrollo del que para muchos es el más grande compositor de todos los tiempos.

## Conductus Ensemble

Conductus Ensemble musika elkartea 2002an sortu zuen Andoni Sierra zuzendariak. Ordutik, 150 kontzertu baino gehiago eskaini ditu hainbat aretotan, hala nola Madrilgo Auditorio Nazionalean, Bilboko Euskalduna Jauregian edo Donostiako Kursaal Auditorioan; nazioarteko jaialdietan, hala nola Toulouse les Orgues Nazioarteko Jaialdian, Donostiako Musika Hamabostaldian edo Cuencako Musika Erljiosoaren Astean; eta hainbat denboraldi ta ziklotan, Kursaal Fundaziokoan, Riojaforum Auditorioan edo Madrilgo Auditorio Nazionalean, beste askoren artean.

Kritika espezializatua eta publikoa bat etorri dira formazio honi aho batez emandako txaloan; izan ere, kontzertu bakoitza esperientzia berezi bat izan da beti publikoarentzat eta bere musikarientzat, Errenazimendutik XX. mendera bitarteko 100 programa desberdin baino gehiago osatzen dituzten maisulanek betetako errepertorio zabal bat irizpide historizisten bidez interpretatuz.

Bere hurrengo konpromisoen artean Johann Sebastian Bachen Kantaten Integralaren interpretazioa, Beethovenen Sinfonien Integrala eta bere Do maiorrean Meza nabarmentzen dira, baita Wolfgang Amadeus Mozarten do minorrean idatzitako Meza ere. Guzti honetaz gain, datorren irailan eta Vocalia Taldearekin batera, "Le Muse Veneziane" izeneko proiektuari hasiera emango diote: Vivaldiren garaian, Ospedaleetarako idatzitako musikak.

La Asociación musical Conductus Ensemble es una formación vocal e instrumental fundada en el año 2002 por su director, Andoni Sierra. Desde entonces ha ofrecido más de 150 conciertos en salas como el Auditorio Nacional de Madrid, el Palacio Euskalduna de Bilbao o el Auditorio Kursaal de San Sebastián; en festivales internacionales como el Festival Internacional Toulouse les Orgues, la Quincena Musical Donostiara o la Semana de Música Religiosa de Cuenca; y en ciclos como el de la Fundación Kursaal, el del Auditorio Riojaforum o el del Auditorio Nacional de Madrid entre otros muchos.

Crítica especializada y público han coincidido en el aplauso unánime a esta formación cuyo empeño ha sido siempre hacer de cada concierto una experiencia especial para el público y para sus propios músicos a través de la interpretación con criterios historicistas de un amplísimo repertorio repleto de obras maestras que van desde el Renacimiento al Siglo XX y que configuran más de 100 programas diferentes.

Entre sus próximos compromisos destaca la interpretación de la Integral de las Cantatas de Johann Sebastian Bach, la Integral de las Sinfonías de Beethoven y su Misa en Do Mayor, así como la Misa en do menor de Wolfgang Amadeus Mozart además de un proyecto junto al Coro Vocalia titulado "Le Muse Veneziane", interpretando una selección de músicas escritas para los Ospedale de Venecia en tiempos de Vivaldi.



## Andoni Sierra, zuzendaria

Donostian, 1971ean jaioa, erdi mailako musika ikasketak egin zituen bere jaioterriko Musika Kontserbatorioan eta goi mailakoak, Madrilgo Real Conservatorio de Música eta Musikenen. Pianoan, Klavibizenbaloan, Musikaren Teorian eta Orkestra Zuzendaritzan goi mailako tituluduna da, Jorma Panula, Maciej Pikulski, Jacques Ogg edo Enrique García Asensio bezalako irakasleekin ikasi izanaz.

Conductus Ensemble eta Koruko Andre Maria Musika Kaperaren sortzailea eta zuzendaria da, eta talde horiei lotu die bere ibilbidea. Sortu zenetik, 150 kontzertu baino gehiago eskaini ditu, ia 100 programa desberdinekin. Programa horien artean, Errenazimendutik XX. mendera bitarteko koru-literaturako maisulanak eskeini ditu, hala nola Monteverdiren Vespro della Beata Vergine, Bachen si minorrean Meza, Brahms-en Requiem-a edo Britten-en Saint Nicolas Kantata.

2015etik Erreterriako Andra Mari Abesbatzaren zuzendaria da, eta Manfred Honeck, Philippe Herreweghe, Paul Goodwing edota Robert Treviño maisuekin lan egin du.

Nacido en San Sebastián en 1971, cursó sus estudios de música de grado medio en el Conservatorio de Música de su ciudad natal y los de grado superior en el Real Conservatorio de Música de Madrid y en Musikene. Es titulado superior en Piano, Clavicémbalo, Teoría de la Música y Dirección de Orquesta, habiendo estudiado con profesores como Jorma Panula, Maciej Pikulski, Jacques Ogg o Enrique García Asensio.

Es fundador y director de Conductus Ensemble y de la Capilla de Música Santa María del Coro, agrupaciones a las que ha ligado su trayectoria y con las que desde su fundación ha ofrecido más de 150 conciertos con casi 100 programas diferentes que incluyen obras maestras de la literatura coral del Renacimiento al Siglo XX como son las Vespro della Beata Vergine de Monteverdi, la Misa en si menor de Bach, el Réquiem Alemán de Brahms o la Cantata San Nicolás de Britten.

Desde el año 2015 es director de la Coral Andra Mari de Rentería a la que ha preparado para trabajar con maestros como Manfred Honeck, Philippe Herreweghe, Paul Goodwing o Robert Treviño.





Abenduak 12 Diciembre  
San Frantzisko Eliza, 19:00

## “Mundutik etxera, etxetik mundura”

### LEHEN ZATIA:

LA PASTORELLA AL PRATO, D. 513, Franz Schubert (Austria, 1797 – 1828)

DER GONDELFAHRER, D. 809, Franz Schubert (Austria, 1797 – 1828)

QUATRE PETITES PRIERES DE SAINT FRANÇOIS D'ASSISE,  
Francis Poulenc (Francia, 1889-1963)

I. Salut, dame Sainte

II. Tout puissant, très saint

III. Seigneur, je vous en prie

IV. O mes très chers frères

TRES COROS DE HOMBRES, (B.76), op. 43, Anton Dvorak (Chequia, 1841 – 1901)

• Sorrow (Zal)

• Miraculous Water (Divna voda)

• The Girl in the Grove (Devce v haji)

UBI CARITAS, Ola Gjeilo (Noruega, 1978)

GONE HOME, Arr. John Wykoff (Estados Unidos, 1982)

### BIGARREN ZATIA:

NUNC DIMITTIS, Albert Alcaraz (Valencia, 1978)

LO ETA TILILI ETA TALALA (del cancionero de Azkue), Javier Busto (Euskadi, 1949)

• Lo, loa txuntxurrun berde

• Tilili eta talala

XULUFRAIA (del cancionero de Azkue, Xabier Sarasola (Euskadi, 1960)

MUTIL TXALEKO GORRI (del cancionero de Azkue), Junkal Guerrero (Euskadi, 1968)

IZAR EDERRAK (del cancionero de Azkue), Josu Elberdin (Euskadi, 1976)

AHOBEROKERIAK ETA AMORIUA, Eva Ugalde (Euskadi, 1973)

Suhar korua osatzen dugunok urte andana daramagu Tolosako Abesbatza Lehiaketara etortzen, bai entzule gisa edo abeslari moduan. Bertan, mundu osotik etorritako koruak entzun ahal izan ditugu, planetako bazter guztietako musikaz gozatu ahal izan dugu, proposamen berezi eta bitxiak deskubritu ditugu... eta horrek izugarri aberastu gaitu. Era berean, hemen izan diren koruetako abeslariak, gure herria, gure musika eta gure ohiturak ezagutu dituzte, eta Euskal Herriaren zatitxo bat eraman dute bueltan beren herrialdeetara.

Hori da "Tolosa" k duen altxor berezietako bat: mundu osotik gurera dakarten kultur ondarea, eta gure etxetik beraienera daramatena. Eta hau da, hain zuzen, gaur aurkeztu diren dizuegun programaren ardatza. Lehen zatian, mundu osoko konpositoreen musika entzungo dugu, lehiaketan sarritan entzuten ditugun konpositoreen musika, atzerriko abesbatzek ekarri ohi dituztena. Bigarren zatian, aldiz, gure etxeko konpositoreek idatziriko obrak eskainiko dizkizuegu, lehiaketara datozen abesbatzek nahitaez abestu behar izaten dituzten horietakoak, eta ondoren, beraien erreperorioetan txertatu ohi dituztenak.

Aurtengoa, egoerak hala behartuta, "lehiaketa" guztiz ezohikoa izan da. Espero dezagun, datorren urtean berriz, egoerak ahalbidetuko digula koru-musika mundutik etxera gerturatzen, eta gure etxetik mundura zabaltzen.

Los miembros de Suhar korua llevamos muchísimos años viniendo al Certamen Coral de Tolosa, bien como cantores o como parte del público. Aquí hemos podido escuchar a coros provenientes de todo el mundo, hemos disfrutado de música de cada rincón del planeta, hemos descubierto propuestas exóticas e impactantes... y todo eso nos ha enriquecido mucho. Asimismo, los participantes del certamen han podido conocer nuestro pueblo, nuestra música y nuestra costumbres, y se han llevado en sus maletas un trocito de Euskal Herria a sus países de origen.

Éste es uno de los tesoros más preciados de "Tolosa": el legado cultural que nos traen del extranjero, y el que se llevan a sus países. Y esa, precisamente, es la idea central del programa que presentamos hoy. En la primera parte, podrán escuchar obras de compositores de todo el mundo, cuya música nos suelen traer los coros extranjeros. En la segunda, les presentaremos obras de compositores nuestros, de casa, obras que los coros que participan en el certamen tienen que cantar obligatoriamente, y que luego, muchas veces, los incluyen en sus repertorios.

Este "certamen", debido a las circunstancias, ha sido muy especial. Esperemos que el año que viene, la situación nos permita acercar la música del mundo a nuestra casa, y ofrecérsela desde nuestra casa a todo el mundo.

## Suhar Korua

Abesbatzen munduan esperientzia haundia duten 26 abeslariz osaturiko gizonen korua da Suhar. 2018ko udazkenean sortu zen, gizonen abesbatzentzako errepertorioa maila gorenean lantzeko asmoarekin. Esteban Urzelai Eizagirre da taldearen sortzaile eta zuzendaria, eta koruen munduan duen esperientzia luze bezain oparora proiektu honen bitartez erakustera ematea dauka helburuen artean, Amaia Zipitria piano jolea lagun duelarik.

Gizonen abesbatzek berebiziko garrantzia izan dute gure kultur ondarean. Hasierako "orfeoia", elizetako koruak, otxoteak eta antzeko taldeak Euskal Herriko kulturaren protagonista izan dira betidanik.

Suhar, gure abesbatzen iraganetik abiatu eta gizonen koruek beren lekua izango duten etorkizunera eramango gaituen katebegia izateko asmoz jaio da. Iragana eta etorkizuna lotuko dituen zubia, alegia. Gure sukaldariak duela zenbait hamarkada beren ogibidea eraldatu zuten, euskal sukaldaritzaren berria sortuz. Hala, Suharrek gure arbasoen gizonen koruen kontzeptua eraldatu nahi du, erroei gogor eutsiz, baina proposamen berri eta kalitatezkoak eskainiz.

Beren lehen proposamena, alemaniar eta austriar konpositore erromantikoen musikaz osatua, Donostian aurkeztu zuten 2019ko maiatzean, eta orduetik Azkoitiko Udaberriko Musikaldian, Oñatiko Musika egunetan eta Pasai Antxoko aste musikalean abestu dute, besteak beste.

Suhar es un coro de voces graves que inicia su andadura en otoño de 2018, agrupando 26 voces experimentadas en el canto coral, con el objetivo de trabajar el repertorio para este tipo de formación al más alto nivel. Es un proyecto impulsado por el director Esteban Urzelai Eizagirre que, con su amplia experiencia en el mundo coral, quiere hacer de Suhar su proyecto personal. En este proyecto participa también la pianista Amaia Zipitria.

Las agrupaciones corales formadas por hombres han sido una de las formaciones más sólidas de nuestro legado coral. Los iniciales "orfeones", los coros parroquiales, los "ochotes", y otras agrupaciones de diversa índole han sido protagonistas de la tradición coral del País Vasco.

Suhar quiere ser ese eslabón que nos una con nuestro pasado coral y nos lleve a un futuro donde las voces masculinas tengan su espacio. Así como nuestros cocineros tuvieron que reinventarse hace algunas décadas para llegar a la nueva cocina vasca, Suhar pretende reinventar el concepto del coro de voces masculinas, manteniendo una sólida unión con nuestro pasado, pero ofreciendo un producto nuevo y de calidad.

Su primera propuesta musical, con obras de compositores del romanticismo alemán y austríaco, se presentó en Donostia en mayo de 2019, y desde entonces han participado en "Udaberriko Musikaldia" de Azkoitia, las jornadas musicales de Oñati y la semana musical de Pasai Antxo, entre otros.



## Ander Simal Alberdi, pianoa

Eibarren jaioa, Piano goi ikasketak burutzen ditu Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga Kontserbatorioan, Karrera Amaierako Ohorezko Aipamena lortuz.

Pianista laguntzaile gisa hainbat kontzertu liriko eskeini ditu Espainiako entzunareto ezberdinetan. Era berean, pianista bezala aritzen da abesbatza anitzetan. 2009an irakasle gisa hasten da Donostia, Gasteiz eta Bilboko Kontserbatorioetan.

Abesbatzei dagokionez, Coro Easo, Kup Taldea, Capilla Santa María eta Suhar taldeetako kidea da.

Gaur egun, Donostiako Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionaleko Errepertorista da.

Nace en Eibar y realiza sus estudios superiores de Piano en el Conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga de Bilbao obteniendo Mención de Honor de Fin de Carrera.

Ha ofrecido conciertos líricos como pianista acompañante en diferentes auditorios de la geografía española. Así mismo, colabora como pianista en diversas agrupaciones corales. En el año 2009 comienza a trabajar como profesor en los Conservatorios de Donostia, Gasteiz y Bilbo.

En su faceta coral, es miembro de agrupaciones corales como Coro Easo, Kup Taldea, Capilla Santa María y Suhar.

Actualmente, es Pianista Repertorista en el Conservatorio Profesional de Música Francisco Escudero de Donostia.

## Amaia Zipitria Zugasti pianoa

Andoainen jaioa (Gipuzkoa). Bertan hasi zituen piano ikasketak Luis Fraca eta Myriam Ulangarekin. Donostian Gonzalo Trevijanorekin jarraitu zuen, eta Baionan Mme. Doué izan zuen irakasle. Rotterdameko Kontserbatorioan Barbara Grajewskaren ikasle izan zen, non piano eta ganbera musikako goi mailako titulu kalifikazio altuenekin lortu zuen.

Orkestran esperientzia: J.O.N.D.E (Joven Orquesta Nacional de España) orkestrako kide izan zen 1993tik 1998ra eta hainbat orkestrarekin ere kolaboratu du: R.T.V.E, O.N.E, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Cadaqueseko Orkestra... etb. Entzute handiko zuzendari askorekin egin du lan.

Madridgo Reina Sofia eskolan pianista laguntzaile izan zen Zakhar Bron biolin jolearen katedran, baita Alcalá de Henares-eko Unibertsitateko Aula de Música-n eta beste hainbat masterclassetan. Gaur egun, Musikenen errepertorio irakasle da: biolontxelo ikasgelan Asier Polorekin, eta klarinete ikasgelan José Luis Estellesekin. Horrez gain, Donostiako Orfeoia, Euskal Herriko Gazte Abesbatza, Andra Mari, KUP, KEA, Suhar Korua eta Conductus Ensemblerekin jo izan du.

Kontzertista bezala, auditorio nagusi askotan jotzeko aukera izan du: Auditorio Nacional Madrilen, L'Auditori Bartzelonan, Zaragoza, Sevilla, Málaga, Oviedo, Euskalduna Bilbon, Kursaal, etb. Eta Espainiatik kanpo: Kroazia, Italia, Frantzia, Suitza eta Ingalaterra.

Grabatutako lanen artean, aipatzekoak dira: Jesús Villa-Rojoren Sonata nº2 Asier Polo biolontxelo jolearekin (Naxos), Orquesta de Cadaqués-eko kideekin egindako Poulenc-en eta Babar-en lanaren ganbera musika bertsoiak (Trito), Debussyren Sonata Irene Echeveste biolin jolearekin, Tartiniren Sonata Erica Ramallo biolin jolearekin (Sony) eta "Soinuaren bidaia" diska Alberto Urretxo tromboi jolearekin.

Nace en Andoain (Gipuzkoa). Cursa sus estudios en Andoain con Luis Fraca y Myriam Ulanga, en San Sebastián con Gonzalo Trevijano, en Baiona con Mme. Doué y en el Conservatorio Superior de Rotterdam con Barbara Grajewska. Título superior de piano y música de cámara con las más altas calificaciones.

Como integrante de la J.O.N.D.E (Joven Orquesta Nacional de España) desde 1993 a 1998 y colaboradora de orquestas como R.T.V.E, O.N.E, Sinfónica de Euskadi, Sinfónica de Bilbao, etc. ha sido dirigida por grandes maestros.

Fue pianista acompañante en la cátedra de violín de Zakhar Bron en la escuela Reina Sofía de Madrid, Aula de Música de la Universidad de Alcalá de Henares y otros tantos cursos magistrales. Actualmente es profesora de Repertorio de violoncello y clarinete en las clases de Asier Polo y José Luis Estellés, en el Conservatorio Superior del País Vasco Musikene y pianista del Orfeón Donostiarra.

Su labor concertística le lleva a auditorios como el Nacional de Madrid y Barcelona, Zaragoza, Sevilla, Málaga, Oviedo, Euskalduna de Bilbao, Kursaal, etc., y fuera de España en Croacia, Italia, Francia e Inglaterra. Entre sus grabaciones destaca la Sonata nº2 de Jesús Villa-Rojo junto con el violonchelista Asier Polo (Naxos) y la versión de grupo de cámara de Babar, Poulenc, con componentes de la Orquesta de Cadaqués (Trito).

## Esteban Urzelai Eizagirre (Oñati, 1979), zuzendaria

Pianoko goi mailako titulua lortu zuen Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan, eta Koru Zuzendaritzakoak Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Musikenen, Gabriel Baltés maisuarekin. Musikenen bertan, Orkestra zuzendaritzako ikasketak ere egin zituen Enrique García Asensio, Manel Valdivieso eta Arturo Tamayo maisuen eskutik. Industri Antolakuntzako ingeniaria da.

Donostiako Orfeoiko zuzendariorde artistikoa da eta, era berean, bertako Orfeoi Txiki eta Orfeoi Gaztearen zuzendaria. Oñatiko Ganbara Abesbatzaren zuzendari aritu zen 1996 eta 2009 urteen artean, sari ezberdinak lortuz, aipagarriena 2004an lorturiko Kantu Koraleko Sari Nagusi Nazionala izan zelarik. 2016-2019 urteen artean, Euskal Herriko Gazte Abesbatza zuzendu du.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearekin elkarlan estua du, azken honek antolaturiko Zuzendaritza Akademiako irakasle taldeko partaide delarik 2012tik. Bestalde, zuzendaritza eta interpretazio mintegi ugari eskaini izan ditu Galizia, Badajoz, Kordoba, Malaga, Sevilla, Ciudad Real, Madril, Albacete edo Asturiasen.



